

## 8. LANAREN BANAKETA SEXUALA.

### 8.1.-Lanaren banaketa sexuala. Oinarrizko kontzeptuak.

Lanaren soziologiaren hastapenetan, azterketa oinarritzat hartzen zen langilearen eredu lantegietako langilearena zen. Eredu horretan, langilea gizonezko bat izaten zen, familia-burua eta beronen diru iturri nagusia. Etxe barneko lana ez zen haintzat hartzen, ez bazen soldatapeko neskameena.

Gizarte zientzien arloan antropologiari zegokion sexuen arteko lanaren banaketa aztertzea. Kultureen arteko konparaketak egiterakoan, argi gelditu zen banaketa hori ez zela ezberdintasun biologikoetan oinarritutako zerbait, baizik eta kultura bakoitzak eraikitako rol sexualetan. Abiapuntu horretatik sortzen da **generoaren** definizioa, baita **produkzio** eta **birprodukzioaren** arteko loturaren garrantzia, edota **lan produktibo** eta **inproduktiboaren** arteko bereizketaren eztabaida.

**Generoaren** kontzeptua, sexuaren kontzeptu biologikoaren aldean, funtsezkoa izan da ustezko determinismo biologikoa gainditzeko. Zeintzuk diren gizonezkoen rolak eta zeintzuk emakumezkoenak, baita euren arteko harremanak, gizarte bakoitzak egiten duen eraikuntza sozial bat da. Horixe da, hain zuzen, gizarte jakin batek duen **genero sistema**. Genero sistemak sexuaren araberako eginbeharreko eta debekatutako jardueren sailkapen bat eratzen du. Birprodukzio biologikoaren gainean dagoen kontrola, etxeko lanen banaketa, edo arlo publikoan egiten diren lanetan parte hartzea; honelako ezaugarri guztiek erakusten dute genero sistemaren oinarri soziala.

Bigarren bikote kontzeptual interesgarria **produkzio** eta **birprodukzioaren** artean eraten dena da. **Birprodukzioaren** kontzeptua bere esanahi zabalean erabili behar dugu, birprodukzio soziala adierazteko. Birprodukzio sozialak gizakion biziraupena ziurtatzen duten antolaketa sozialaren baldintza guztiak hartzen ditu bere barne, hau da, birprodukzio biologikoa edo lan indarraren birprodukzioa moduko gertaerak. Ikusi dugu nola, gizarte industrialaren agerpenarekin, desagertzen da familiaren izaera produktiboa, hau da, banaketa bat ematen da produkzio eta birprodukzioaren artean. Familia mantentzen da birprodukzioaren esparru moduan, baina bereizketarekin, bere garrantzia produkzioarako ezkutatu egiten da.

Hemendik ondorioztatzen dena da birprodukzioarako lan guztiak ez direla jarduera **produktibotzat** hartzen baizik eta zerbait **inproduktibo** balira: amatasuna, zaintza lanak, heziketa, etxeko lanak, eta abar luze bat ez dira arlo produktiboan kokatzen baina ez badira ematen ez legoke inolako produkzioarik.

## **8.2. Ikuspegi teorikoak.**

Lanaren zatiketa sexualaren inguruan azken hamarkadatan egin diren lanak ugariak dira. Horren ondorioz, ikuspegi teoriko ezberdinak daude arazoa interpretatzerakoan. Feminismoaren aniztasun ideologikoak ikuspegien aberastasun bat ekarri du berarekin, elkarren osagarriak direnak zenbait kasuetan eta kontrajarriak beste batzuetan.

### **A) Generoen asimetriak:**

Arnasa hartzea, ibiltzea, jatea eta horrelako ekintzak gauza naturalak dira eta ez genduzke lan moduan hartuko. Era berean, amatasuna, edoskitzea, umeak hezteak edo etxeaz arduratzea jardura naturaltzat hartzen dira baita. Hau da, etxean bertan erabiliko diren zerbitzuak edo ondasunak ekoiztea “naturala” izango da eta ez da lana izango, ez da zerbait produktiboa.

Beste alderdian legoke etxetik kanpo egiten den soldatapeko lana, merkantziak sortzen dituen eta, normalean, familia-buruak egiten duena. Lan hau benetako lana da diru iturria delako.

Ikuspegi horretan, emakumeak etxetik kanpo lan egiten badu ere, **bere lana laguntza moduko bat da**, hau da, osagarri modukoa. Izan ere, gizonezkoen lana diru iturria da, baina emakumeena “laguntza” bat. Horretan datza generoen asimetria lanaren inguruan.

Asimetria honek ondorio zabalagoak ditu emakumeen lana baloratzerakoan:

1) Uste izaten da emakumeen izaera naturala birprodukzioarako dela, lan produktiboa bigarren planoan gelditu beharreko zerbait izanik.

2) Emakumeen lana laguntza da familiaren diru iturriaren osagarri moduan jotzen delako.

3) Emakumeen partehartzea soldatapeko lan merkatuan behin behinekotzat jotzen da, beti dagoelako haurdunaldiaren aukera edo norbait zaindu beharra (emakumeen eginbehar naturala). Jarrera honek justifikatu egiten ditu emakumeen kontra ematen diren tratu baztertzailak.

4) Kualifikaziorik gabeko lan asko emakumeen eskuetara joaten dira, laguntza bakarrik direlako.

### **B) Feminismo marxista.**

Ikuspegi marxista duten feministek eztabaida zabalak planteatu dute etxeko lanaren inguruan. Bere ustez, sistema kapitalistan, birprodukzio lana kapitalaren logika barruan kokatu behar da, hau da, etxeko lanak lan indarra ekoizten du, eta lan indarra merkantzia bat baldin bada, etxeko lana produktiboa da, lan merkantzia hori ekoizten duelako. Are gehiago, kapitalaren zikloaren ardatz bat izango litzateke.

Argudio horiek azken muturreraino eramanez egile batzuk ekoizpen sistema domestikoari buruz hitz egiten dute, non gizonak eta emakumeak klase antagonikoak lirateke.

### **C) Azterketa soziohistorikoak.**

Honelako eztabaida idelogikoak albo batera utziz, ikerketarik interesgarrienak inguru hurbilean eta, gizarte konkretuetan, emakumeen lan egoeran eman den bilakaera historiko eta soziala aztertu dute. Egoera horretan hiru fase nagusi bereizten dira, kapitalismo industrialaren eboluzioan:

1) Proletarizaio fasea: Industrializazio prozesuaren lehen uneotan emakume eta haurren lana funtsezkoa zen jarduera askotan. Familia osoak kontratatzen ziren eta familia buruak jasotzen zituen guztien soldatak. Gaur egun ere horrela izaten da industrializazio bidean dauden herrialdetan.

2) Homogenizazio fasea: XIX. mendearen amaieran burgesiaren familia eredu maila sozial guztietara hedatzen da. Horrela emakumeen esparrua etxeko ekintza birproduktiboetara mugatuko da. Bere garaian aurrerapauso moduan ikusten da zama bat arintzen zaielako emakume eta haurrei.

3) Lan banatuaren fasea: XX. mendeko bigarren zatitik aurrera, emakumeak bueltatu egiten dira etxetik kanpo lanera, baina egingo duten lana bereiztua egongo da gizonezkoen lanengandik eta baldintza kaxkarragoetan ematen da. Azken fase honetan, ongizatezko estatuaren hedapenak murriztu egingo ditu emakumeen birproduktzioarako beharrak etxe barruan eta denbora gehiago emango die emakumeei bere soldatapeko lanarekin jarraitzeko. Gainera, masa kontsumoaren gizartea zabaltzerakoan, beharrezkoa bihurtuko da soldata bat baino gehiago izatea.

80. urtetako hamarkadatik aurrera hainbat aldaketa eman dira herri garatuetan: aldaketa demografikoak, familia eredu berriak, emakumeen kualifikazio handiagoa, parekotasun legeak, e.a. baina oraindik ezberdintasun handiak mantentzen dira.

### **D).Bestelako ikuspegiak.**

Etxeko eta kanpoko lanak bateratu beharrak “agerpen bikoitza/lanaldi bikoitzaren” ikuspegia sortu du.

Beste azterketa batzuk lan nortasun femenino bereziak ikertzen dute. Noraino funtzionatzen duten logika ezberdin batekin aurkitu nahi dute. Prekarietatea, langabezia/lana, lanaldi murriztuak eta horrelako gertaerak beste era batean gertatzen dira emakumeen lan bizitzan.

Ikuspegi positibo batetik, zenbait egilek bilatzen dutena emakumen jardueren birbalorazio bat izaten da. Horrela, enpleguaren eredu maskulinoa gainditu nahi da.

### **8.3.Etxeko lanak. Eztabaida berriak.**

Lanaren zatiketa sexuala betidanik eman bada, kapitalismo industrialaren agerpenak areagotu egin zituen banaketa horren ezaugarriak. Produkzio eta birproduktzioaren banaketa, bai denboran, baita lekuetan birproduktzioaren antolaketa berri bat ekarriko du. Berarekin batera

eztabaida berriak ere sortu ditu. Hala nola, etxeoandren soldatarena edo, etxeo lanaren kontabilitatearena kontu makroekonomikoak egiterakoan.

Etxekoandrei soldata bat jartzea aspaldiko eztabaida da, behin eta berriro birplanteatzen dena. Erreibindikazio horren atzean dagoen asmoa etxeo lana zerbait baloratua izatea da, hau da, ikusten den zerbait dirutan zenbatuz. Hala ere, alde negatibo nabarmen bat du. Horrelako erreibindikazio bat onartuko balitz legitimatua eta indartua egongo litzateke ematen den lanaren banaketa produkzio eta birprodukzioaren artean. Emakumeen bazterketa esparru domestikoan onartzea izango litzateke.

Bestelako aldarrikapena da birprodukzio lanaren kontabilitatea eskatzen duena. Barne Produkto Gordina (BPG) eta bestelako kontu makroekonomikoak egiterakoan, merkatuan agertzen diren ondasunak eta zerbitzuak baino ez dira zenbatzen. Azken urteetan agertzen ari dira metodologia berriak ezkutuko lan hori zenbatzeko. Horretarako birprodukzioan ematen diren hainbat zerbitzuak ordezkatzeko kostua kalkulatu da. Hurbilketa bat baino ez da, baina bere helburua ezkutuko lana begi bistara ateratzea da, eztabaida piztuz eta birbanaketa proposatuz.

#### **8.4.Emakumen enplegua:ezaugarri bereziak.**

Nahiz eta azken urtetan aurrerapauso nabarmenak eman emakumen lan baldintzen inguruan, oraindik ezberdinak dira gizonezko eta emakumezkoen ibilbideak lan merkatuan, are gehiago, krisialdiarekin.

Kualifikazio txikia eskatzen duten zerbitzuetan, eta ekonomiaren periferian dauden jardueretan emakumeak izaten dira gehien kontratatzen direnak. Lan merkatuetan ematen den zatiketa, gero eta handiagoa, lan prekario eta lan egonkorraren artean, emakumeak eta gazteak dira lan prekario horren talde nagusiak.

Emakumen kolektiboan lan ibilbideak erabat zatikaturik daude kualifikazio, adina eta zama familiarren arabera. Emakume bananduak, seme-alabak eta kualifikazio txikikok izaten dira prekarioenak. Aldiz, emakume gazteak, kualifikazio altukoak eta zama familiarrik ez dutenak aukera handiak dituzte karrera profesionala garatzeko, nahiz eta lehia gizonezkoekin gogorra izan gaur egun ere.

Egile batzuen arabera, gure inguruan emakuen bi motatako biografia laboralak egon dira:

1)1955-1980 urte tartean ematen dena. Emakuek adin gaztean hasten ziren lan egiten (14-16 urterekin), kualifikazio baxuko lanetan eta ezkontzerakoan edo lehen semea izaterakoan lana uzten zuten. Seme-alabak nagusi direnean berriro bueltatu dira lan merkatua, jubilazio bat izateko, baina baldintza kaxkarretan.

2)1980- gaur egun arte. Emakumeen kualifikazioa nabarmen hobetu da. Zenbait lanbide kualifikatuak (medikua, epailea, ) feminizatu egin dira. Amatasunaren atzerakada handia egon da, bai adinean, baita seme-alaben

kopuruan. Karrera profesionala garatu nahi dute emakume hauek eta lanaren ikuspegi jarraitu bat izaten dute.

### **8.5.Emakumen lan baldintza bereziak.**

Aurrerapen handiak gertatu arren oraindik nabarmenak dira emakumen lanak dituen arazoak eta ezaugarri bereziak.

1)Gaur egun, oraindik uste izaten da emakumentzako lanik egokienak birproduktzio jardueren jarraipena direnak. Irakaskuntza (behe mailatan), osasungintza, zaintza lanak, garbiketak, supermerkatuak, zerbitzu laguntzaileak. Gainera bilatu egiten dira etxeko lanarekin bateragarriak direnak.

2)Bazterketa horizontala.Aurrean aipatu dugun eredu horren jarraipen bat da. Jarduera batzutan emakumeak bakarrik kontratatu nahi dira soldatak oso baju mantenduz. Beste kasu batzutan emakumeak oraindik apaingarri moduan erabiltzen dira, bere itxura fisikoa gainbaloratuz.

3)Bazterketa bertikala. Oso gutxi izaten dira aginte postuetara heltzen diren emakumeak. “Kristalezko sabaiaren” efektua mantendu egiten da. Ikustezina da, baina hor dago tope moduan igoeran.

4)Azken datua, eztaba daezina, soldata ezberdintasuna da. Gutxitan izaten da diskriminazio argi eta nabarmen baten ondorio zuzena, baina zeharka askotan ematen da. Kategoria ezberdinak ezartzen dira, antzeko lanak egin arren soldata ezberdintasun horiek justifikatzeko.